

SEGURA / Herriaren iraganean oinarritutako komikiak gaur aurkeztuko dira

SEGURA. DV. Aurtengo 750. urteurreneko ospakizunen harira, beste zenbait argitalpenekin batera, Udalak hiru komiki argitaratu ditu herriaren iraganean oinarritutakoak. Koldo Izagirre idazleak sortu ditu testuak Marigorri pertsonaiaren inguruan eta marrazkiak Juan Carlos Nazabal eta Imanol Zinkunegirenak dira.

Komiki hauek gaur aurkeztuko dira, 17:45etan, liburutegian, egileekin batera bertan izango direlarik Mikel Areizaga alkatea, Kutzako Xabier Huizi eta Joseba Intxausti.

Herriko historiaren hainbat pasarte jasotzen dira hiru komiki hauetan, zeinen izenburua eta deskribatzen diren garaiak hauek diren: Marigorri, Judu kalekoa, XV. mendeko istorio bat Seguran; Marigorri Parisko bidean, XIX. Mendeko istorio bat Seguran; eta Marigorriren botoa, XX. mendeko istorio bat Seguran. Argitalpen hauen aurkezpena amaitutakoan, Joseba Ramirez ipuin kontalariak istorio hauek zuzenean bizi araziko ditu.